



Agurtzen zaitugu ama

Agurtzen zaitugu ama alaba arreba emazia alargun Abe Maria graziaz bete betia.

Jainkoak sartzen du hazia emazte birjin barnean gizonek bere erraietan utzi baino lehen bizia.

Gizon itxura har nahiean ez zuen aurkitu besterik andregandik jaio behar jainkoa izanagatik.

Ahalguztidunak nork daki zer nolako eskrupulotan ukatzen den sortutzea emazte ikutuetan.

Same santuaren ama alaba arreba emazia alargun Abe Maria graziaz bete-betia.

Horrelako emakumerik ez da munduan besterik heriotza eta gizonen izorratu gabekorik.

Aspaldi mundua hustua eta zeruan kabitu ezina ginake Ama Birjina denok birjina bagina.

*Musika: Amaia Zubiria / Pascal Gaigne
Hitzak: Amaia Zubiria*

Agurtzen zaitugu ama

Ondoan zauzkat

Ondoan zauzkat

Ondoan zauzkat gaez kiratsa lekugarri ez zaitut maite goitzez izenez ahantzi hori iluntasuna ez balitz berdintzeko gai dena hilko nuke egun argiz gure ezberdintasuna.

Erraiteko deus eta hizkuntz zabala alferrik gauza berdinen alde bizituaz bizi erdi gauza berdinen aurka beste erdi hainbeste erdi ez dugu elkar ulertzen ez zuk neri ez nik zuri.

Ikusi orduko su gar bata besteen meneko ez didazu ukatuko behar gorri berrero irainez hain berotu gurinez odol ero maitasunik han ez zen azalduko honezkerok.

Zerbaitek aitzinetik pultzatuak bezala lotsak uxatuak ziren azalaren premura bagenekien horratik horrela behar zuela solamente ez zen hola amestutako ametsik ondoan zauzkat gaez kiratsa lekugarri klandestino heldu zaitetz arratsa iluntzean.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria

Heldu zaigu azaro

Heldu zaigu azaro eta ez nago oparo elizkizunik ez dut nire hilei eskaintzeko ateo naizenez gero neronek ez ditut nahi kantuaz lore hilak eta itxurak gero maitasun eta ohore ez dira inoiz garaiz elgarrekilan heltzen bizipoza bezala hiltzen gaituen ezpatak bedeinka ez gaitzala.

Sienprebibak loretan hilerriko harrietan krisantemo gardenak umezurtzen malcoetan eskatu zuten sarri ferekaren egarri ez ote ziren beti berantegi denetan aunitzetako penak krisantemo gardenak zertarako gaur denak maitasuna bezala hiltzen gaituen ezpatak bedeinka ez gaitzala.

Sarritan nahi izan dut bertze aunitzek bezala liturgi ederretan begiratuaz zerura hitz magikoak erranz uxatuaz gaitz danak bedeinkatuaz hila santua bihurtuaz ez ote zen ederra joka behar horrela gezurretan ez balitz gehienetan bezala hiltzen gaituen ezpatak bedeinka ez gaitzala.

Inor aspertu gabe alde nahiko dut garaiz nere buruaren jabe nere borondateaz mediku arrotz horien baimenikan gabe maite nauen jendea mindu gabe sobera kantuz beste mundura sortu nintzen modura berriro beztituaz arranoen itzala hiltzen gaituen ezpatak bedeinka ez gaitzala.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria



Alferretan haiz sortzen

Alferretan haiz sortzen oi lore maitia baratze bazterrean umilki gordea bafada goxoenak hau beti salatzen hire egoitza bakoitza aiseki kausitzen.

Bertze lore guziak sortu bezain sarri arrai dantzan bitzuk sefi soinuari hi aldiz belarpean burua behera alargun bat iduri lurrari begira.

Ez dik naturalezak bere mila obretan nehor deusik agertzen egina alferretan bada ba haiz munduan gordea egoteko hire dohain guziak erran zertarako.

Hire lagunek haute beregana deitzen jelosia bera ere edder duk juntatzen altxa beraz lurretik ez uka etorkia arrosaren aldean duk hire tokia.

*Musika: Herrikoia / Pascal Gaigne / Amaia Zubiria
Hitzak: Larralde 1862*

Ilargia jaio da

Ilargia jaio da

Emeki harrapatu haute hi konturatu gabe
 hik eman dun pausoa hi konturatu gabe
 gaur hemen eta betiko hori esan dinate
 hik egin dun aukera hori esan dinate
 ez dun pentsatu beharrik
 besteek egingo ditzen lan hori
 arrisku guzietatik
 beraiek salbatuko haute
 ilargia jaio da gauero bezala
 hi leihotik begira arnasa jaso dun pentsati-pentsati
 izar ugarizko gaua
 izar ugarizko gau hontan logaleak ihes egin din
 logaleak ihes egin din.

Bizitzak alde egin din hi konturatu gabe
 irriak alde egin din hi konturatu gabe
 negarrak ez din balio hori esan dinate
 hik egin dun aukera hori esan dinate
 jaso ditun pusketak
 ez dun gauza handiren beharrik
 eguna hiltzen utzi dun
 eta loreak egarritzen
 ilargia jaio da gauero bezala
 hi trenetik begira arnasa egotzi dun pentsati-pentsati
 izarrik gabeko gaua izarrik gabeko gau hontan
 ametsekin ihes egin dun.

Musika: Amaia Zubiria / Pascal Gaigne
 Hitzak: Amaia Zubiria

Elorri xuriaren azpian

Elorri xuriaren azpian

Elorri xuriaren azpian andereak lokartu
 elurra bezain xuri ekia bezain edderrik
 hirur kapitainek zeraurkaten gortez inguraturik,
 Kapitainak joan ziren beren zaldiak harturik
 hartu zuten anderea mantuz untsa trozaturik
 gero Pariserat eraman zuten aitamek jakin gabetik.

Parisen ostaliersak bazuen salutatuta
 bazuen salutatuta berriak ere galdatu
 bortxaz ala amodioz jina zaren anderea errazu.

Ez ez ene bihotza arras bortxaz jina duzu
 hirur kapitainek galeriatik
 harturik jina nuzu.

Kapitainak hori entzunik jiten dire andereagana
 anderea afal zite ezirik eta tranklik
 hirur kapitain izanen tutzu gaur zure zerbitzari.

Andereak hori entzunik hila zuzun erori
 kapitainak joan ziren beren zaldiak harturik
 nigar egiten zutelarik andereari dolu eginik.

Melodia eta hitzak: herrikoiak

Ezin zen eta ez ginen

Ezin zen eta ez ginen

Esteban Nietoren omenez

Ezin zen eta ez ginen
inoiz elkar gertura
hirea zen mundura
sartu gabe sekula.

Ezin zen eta ez ginen
ezagutuko baina
nik maite dudán haina
maite huan hik hura
berria heldu zaidak
inorentzat bentaja
biona den herriak
zauri bat gehio dauka.

Ezin zen eta ez ginen
eta ez zen beharrezkoa
aita batez senide
ama berdinekoa.

Ezin zen eta ez ginen
ez maite ez gorrota
hire ziurtasuna
nire zalantzen kontra
berria heldu zaidak

inorentzat bentaja
behar gaitun herriak
zauri bat gehio dauka.

Ezin zen eta ez ginen
oso urrun ibili
arrisku ezberdinek
zintzelatuz biori.

Ezin zen eta ez ginen
etsaiarentzat erraz
ziztaka sistemari
mugaren kontra joka
berria heldu zaidak
inorentzat bentaja
hiltzen gaitun herriak
zauri bat gehio dauka.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria



Egun argi hartan

Amartso jeki eta leinok ireki hituen
oguzki erramuen besotetan murgilduaz
erata zabaldu eta bide luzeñá hartu egin huen
egun argi hartan.

Eguzkiaren argia lainoaz estali zuan
bitzaren eskale maitasunean emale
áste herdoindu haien zaurien odola ixuriaz
ezezagunen oheetan.

Gosearen gosez loreak jan hituen
magal gozoaren egarri asegabeaz
jakez eta logalez haizearen maitale izan artean
sutan lo egin huen.

*Musika: Amaia Zubiria / Pascal Gaigne
Hitzak: Amaia Zubiria*

Egun argi hartan

Mendian zuin den edder

Mendian zuin den edder eper xango-gorri ez da behar fidatu itxura edder hori ene maitiak ere bertzeak iduri eni hitzeman eta gibelaz itzuli.

Gaztena ontu eta lurlean ihaurri ene bihotza duzu zuganat erori eta zurea aldiz harria iduri ene begi gaxuak nigarrez iturri. Airea zaharra eta kantoria berri ene maite pollita zira xarmagarri kolore xuri-gorri arrosa iduri mundurat jina zira ene ihargarri.

Heldu naiz zureganat arrosa edderra ezinbertze huntarik nezazun atera xangrin huntan hiltzeko nik balait malurra begitan bazinuke betiko nigarra.

Melodia eta hitzak: herrikoiak

Maite zaitut maite (itsasoari)

Maite zaitut maite isiltasanak dakarkidan urdina zabalaz eta izerditsua gaeuz odolez eta ametsez eta hori zer den jakin gabe maite zaitut.

Hemen nauzu hemen zuga gaeuz natorkizu umil igeri ikasiko dut haizeaz

koloreak nahasi gabe eta hori zer den jakin gabe maite zaitut.

Maite zaitut maite aspaldian jasoriko marruma ur handietan sakona urrun desioaren oinaze eta hori zer den jakin gabe maite zaitut.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria

Mami xuri

Mami xuri

(Maitatzeko amona-amei, nire amatxori)

Lurreko indarra enbor ta adarra argiaren distira su ta garra tximistaren lantza ekaltzaren antza etengabeko lurraren mina eta esperantza.

Bihotza diote hautsi odola irentsi edonork ez du geldiaraziko ezta erdietsi ama ari da kantan halzea enbatan bere ukabilak borroka aldarrikan bortxatu ta saldu hil ta desagertu umez hustua utzi dute eta gorrotoz indartsu. Ez du horrela utziko ez jaun ez jaungoiko kendu dioten bizitza bergez eskuratzeraino.

Agurtzera hator amatxo gaur zuri ogi azal gogorra mami xuri odolez jarlo bihotza jarlo eskaini nahi dizkiogun malkoek ez diote balio bortxatu ta saldu hil ta desagertu umez hustua utzi zaituzte gorrotoz indartu hau horrela ez bazen ikusagun bertan erundaka oihal xuri artean maitatzeko plazan.

Agurtzera hator amatxo gaur zuri ogi azal gogorra mami xuri.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria





Paradisu bat

Paradisu bat

Paradisu bat nuen guretzat ametsetan
biona zen eremutik bidali egin ninduen
esnatu nintzelarik
ametsa atxiki nahiak hautsi zautan ametsa
pasaraziaz orria
tenporen neurri zehatza nabarmentze ez horretan
paradisu ezkutua guretzat asmatua!

Bere dolurik badu
festa behar zukeenak
«zatoztela dantzara» zioen oraindik denak
ordea usteldurik
dagoeneko zirenak
gerezi gorrienak.

Igaro zen nigandik ekaitz bortitz antzera
agian azken bagoia
agian azken trenea
agian azken poema
aitzin zegoen egia begiratu ezina
zaharrek bat-batean dugula usain ezberdina
amorante ordeari
kalaketan entzuna
lapurtu artio lotsak
lokaztu artio estima
gorputz liberatua
ezin artio kontsola
baztertuaz horra nik ez dakit nola
egun batean
odola.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria

Ametsa nun zaude

Matixari

Ametsa nun zaude atozki gargero
Matixak zurekin egin nahi baitu... lo
bihotzaren hotsa... amaren bihotza
behatzaren goxo... titien ordeko
beldurra uxatzeko.

Amets zure bidez amatxon ahatsez
zuk nahiko bazendu eraman gaitzazu
bihurturik amets.

Jostailu ederrez itsasoko izarrez
xori eta arrainak kantu eta dantzak
goxoki eta txikiez aitarekin solas amarekin jolas
zuk nahiko bazenu eramanen gaituzu bihurturik amets.

Ametsa nun zaude... atozki gargero
Matixak zurekin egin nahi baitu... lo.

Melodia eta hitzak: Amaia Zubiria

Ametsa nun zaude